

Euskal Idazleen Elkartek erabat berritu du 'Hegats' aldizkaria bere 25. urtean

:: M.M.

DONOSTIA. 'Hegats', Euskal Idazleen Elkartaren literatura aldizkaria, «berritzeko ordua iritsi da». Hala azaldu zuen atzo elkartaren lehendakaria den Jasone Osorok 53. alearen aurkezpenean. 25 urte igaro ondoren, «bada garaia beste formatu eta eduki erakargarriago bat egiteko, literatura kalera ateratzeko eta edozein lekutan beste aldizkarien artean euskal literatura aritzen den bat aurkitu ahal izateko». Elkarteko idazleek papearen aldeko apustua egin dute, aldizkaria xarma berri bat emanez.



HEGATS
Maiztasuna: urteakira.
Argitallea: Euskal Idazleen Elkartea.
Orrialdeak: 71.
Salneurria: 5 euro.

Duela urtebete, elkartea Lander Garroren jarritan harremanetan 'Hegats' berria martxan jartzeko asmoz. Berrikuntza lana egiteko pertsona aproposa zela pentsatu zuten «kazetari bezala oso konpletua eta zirikatzaila delako». Ordutik, idazle elkartek bere esku utzi du zenbaki honen koordinazio eta zuzendaritza.

«Gure literatura eta kultura 21. mendeari begira jartzea garrantzitsua da», adierazi zuen Garrok. Ale berri honek euskal kulturaren «irreberentzia» aldarrikatzen du, orain arte bere uestez literatura izan duen zurruntasun eta itxutasunari amaiera emanez. Zenbakiaren azalak berak ere etorkizunari egiten dio erreferentzia, «denok biziko garen lurraldeari», bertan itur bandako Peru Iparragirre gaztea azaltzen baita. Beste 71 orrialdeetan irakurleak Harkaitz Canok bidaiekin egiten dituen marrazki bildumak eta Ramon Saizarbitoriren zortzi liburu gogokoak ezaugarritu ditzake, besteak beste.

'Hegats' urtean behin argitaratuko da («oraingoz») eta bost euroan salgai egongo da kioskoetan.

Atxagaren proposamen berria: haurrentzako liburuekin irakurketa dramatizatuak egitea

«Aktore asko eta onak ditugu, eta egin lezakete lan hori», esan du Xola txakurraren bosgarren liburua aurkeztean

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Xola txakurraren bosgarren istorioa plazaratu du Bernardo Atxagak: 'Xola eta lapurra'. Marrazkigilea ohikoa da, Mikel Valverde, 1995ean hasi zuen bilduma hau, lehenengo alea 'Xolak badu lehoien berri' izan zelarik. Eta pentsatuta dauka hurrengo istorioa ere, honelatsuko izenburua edukiko duena: 'Xola eta arte modernoa'.


Protagonista nagusia Xola da, «txakur inuzente bat -idazlearen hitzetan-. Hasieran, uste zuen lehoi bat zela, gero irudipena izan zuen basurdeak harripatzeko gai zela... bere xalotasun horrekin talka egiten du errealitatearekin, baina ez du ikasten».

Gazte garaian, Atxagarenean txakur bat eduki zuten. «Behin, esan nion anaiari txakurra zaintzeko, nik irten beharra neukala-eta. Hari, zer okurrituko eta pentsatu zuen lapur-plantak egitea. Sartu zen etxean lapurak sartzen diren bezala eta han ixiltasun erabatekoa zegoen. Bila eta bila, etxe guztia ko-

ritu zuen eta, azkenean, arropa zaharra gordetzeko armairu batean, hantxe zegoen, manta baten azpian gordeta. Xolak hau esango zukeen: 'ni hementxe nengoen deskantsatzen, eta ez daukat zertan esplikaziorik emanik'».

Idazleak goraipatu egin du marrazkilaria: «Mikel Valverde bakana da, gutxi bezalako, umorea erakusten baitu bere marrazkietan. Egillor ere umoretsua zen, harekin ere egin nuen lan. Marrazkilaria poetiko asko daude, baina umorea daukatenak gutxi».

Liburuaren aurkezpena baliatu du Atxagak ideia berri bat plazaratzeko: «Egia da haur literaturan garrantzi handia daukatela irudiek, ilustrazioek, baina beste osagarri bat ere eduki behar duena egin dezake aktoreak. Marsh saria irabazi dut eta oraintxe bertan etorri berria naiz Londresetik, sari hori eman baitidate Xolari buruzko liburua dila-eta. Children's Books Show erakundeak antolatutako ekitaldi bat zen, antzoki batean geunden, aurrean 700 ume, eta egileak esan zituen gauza batzuk, baina han leku nagusia aktore batek zuen. Hura hasi zen Xolaren gaineko kontakizun hura antzeztzen eta -fedee giten diuzet- umeak hipnotizatuta



XOLA ETA LAPURRA
BERNARDO ATXAGA
Generoa: Haur literatura.
Argitallea: Erein.
Orrialdeak: 61.
Salneurria: 10,40 euro.



Atxaga, atzo. :: usoz

«Umeentzat idazten ari naizenean, umore zuria erabiltzen dut beti, apur bat burlatia»

«Mikel Valverde bakana da, umorea daukalako. Marrazkilaria poetikoak, aldiz, asko dira»

egon ziren ordubetz. Hemen Euskal Herrian aktore asko daude, eta onak; egin lezakete lan hori, eta erraza litzateke horrelako ekitaldiak antolatzea».

Ilustrazioen aldarrikapena ere egin du Asteasuko idazleak: «Alizia

herrialde miresgarrian' liburuan ere, lehenengo atalean, Alizia agertzen da bere ahizparekin, errekaaren ondoan, liburu bat irakurtzen, eta esaten dio ahizpa horri asper-asper egina dagoela, liburu horrek ez daukalako ez elkarriketarik eta ez marrazkirik». Mikel Valverdearen marrazkiak «oso garrantzitsuak» izan omen dira Xolaren liburuetan.

Eta Londreseko egonaldiko beste gertaera bat azaldu du baita ere Atxagak. Alegia, Michael Rosen idazlearekin batera ekitaldi batean jardun zueneko. «Hartza ehizatza gaoz» en egilea den «idazle hau 'laureats' bat da Britainia Handian, benetako izarra. Hark ere irakurketa dramatizatua egin zuen tarte batean».

Atxaga «umore zuria aldekoo» izan da beti, nahiz zenbaitetan umore beltza ere landu duen, adibidez 'Zazpi etxe Frantzia' delakoa. «Baina umeentzat idazten ari naizenean, umore zuria erabiltzen dut beti, apur bat burlatia, Charlie Rivel klownaren antzekoa. Gogoan dudana nire lehenengo irakurketa Pierre Lotiren 'Ramuntxo' da, baina hasiera hartan eragin zidana beste bat da, umoretsua: Charles Dickensen 'Pickwick klubaren paper postu-moak'. Gero, Lewis Carroll ere funtsezkoa izan da idazle honen ibilbidean.

«Haurrentzako literaturari dagokionez, nire erreferentzia Dickens izan da, eta umorea egin nahi izan dut beti. Poesian, berriz, beti esaten dudana: Eugenio Montale», adierazi du Atxagak.

Alaba batek aitari emandako besarkada, hamar koplatan kontatua

Uxue Alberdi testugileak eta Maite Gurrutxaga ilustratzaileak elkarlanean sortutako 'Besarkada' albuma kaleratu du Elkar etxeak

:: MAIALEN MANGAS

DONOSTIA. Duela lau urte Uxue Alberdik, kazetari, idazle eta bertsolariak, besarkada baten nondik norakoak kontatzeko hamar kopla sortu zituen. «Haizea dabil atean, zakurra zaunka katean. Egin zaidazu toki txiki bat zure besoan artean», Alberdik abestuz sortu zituen bertso haiek gaur Maite Gurrutxagaren irudiekin batera album ilustratu bilakatu dira. Gainera, azaroaren 19an Elkar argitaletxearen eskutik kaleratu zen liburu honekin batera, sei minutuko bideo bat ere egin dute, non Arkaiz Barriola Gurrutxagaren ilustrazioak animatu dituen. Marrazkiek Ruben Caballerok konposatutako musika daramate eta haren doinuarekin Uxue Alberdik, ahots leunez, albumeko koplak abesten ditu.

«Liburu desberdina da, bai forma eta bai edukian», azaldu zuen atzo bertsolariak liburuaren aurkezpenean. Edukia obraren izenburutik berak jasotzen du: alabak aitari eska-



Alberdi eta Gurrutxaga 'Besarkada' liburuaren aurkezpenean.

tzen dion besarkada baten istorioa da. Egiturari dagokionez, zirkularra da, hasieran besarkada baten bila dabilena baita amaieran hura eskaintzen duena. «Umea da hasieran besarkada behar duena, eta amaieran bera da aitari besarkada ematen diona», adierazi zuen atzo Alberdik. «Gizakion txikitasmenean, zein garrantzitu-

BESARKADA
UXUE ALBERDI
MAITE GURRUTXAGA
Argitallea: Elkar.
Orrialdeak: 28.
Salneurria: 12,50 euro

sua den bestearen besoetan egotea... beti berriro ere askatuak izateko. Denok behar eta eskaini ditzakegu besarkadak, horixe da koplaren muina», zehaztu zuen.

Marrazki eta poesia bidez gauzatutako istorio batek beti dirudi haurrentzako izango dela. Baina ez da hala. «Album ilustratuak umei zuzendutako direla ematen du beti, baina hau helduentzat pentsatua dago, » esan zuten atzo egileek. Uxue Alberdik kontatu zuenez, koplak sortu zituenetik «gaizki pasatzen ari diren hainbat laguni» bidali dizkie eta «denek haren mezua jaso eta bihotzez estimatu dute». Liburuak besarkada bat oparitzen du eta «jasotzen duten guztiek nire lagunak bezala estimatzea espero dut», esan zuen elgoibarko idazleak.

Sonido Pro, Djs, Iluminación show, animación, speakers, bodas, fiestas, eventos, desfiles, imagen, audio, músicos de cocktail, karaokes, sound system, video, entertainment, bodas vip, postbodas, guateques, etc...

Bengoa
Entertainment

www.bengoa.es
943 44 68 76